

ETXEBIZITZEN ENERGIA-EFIZIENTZIA HOBETZEKO PROGRAMAKO LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA. 4. PROGRAMA

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

<ul style="list-style-type: none">• Oinarri hauei jarraiki laguntzak deitzerakoan eta laguntzak emateko ebazpenean ezarri diren baldintzak bete direla justifikatuko duen jarduketa-memoria. Gauzaturiko jarduerak eta lorturiko emaitzak adierazi beharko ditu. Aipatu memoria tituludun teknikari eskudun batek egin eta sinatu beharko du. Memoriak jarduketaren bukaera-data zehaztu beharko du ere. Azkenik, aplikatzekoa den derrigorrez bete beharreko araudia bete dela egiaztatu beharko du ere.
<ul style="list-style-type: none">• Jarduketak bukatu ostean lorturiko etxebizitzaren energia-efizientziako ziurtagiria. Jarduketa aurretiko ziurtagirirako erabili zen egiaztatze-sistema berbera aplikatu beharko da eta teknikari eskudun batek sinatu beharko du ziurtagiria. Organo eskudunean erregistratua egon eta laguntza lortzeko eskaturiko baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko du.
<ul style="list-style-type: none">• Instalazio termikoaren ziurtagiria, hala badagokio, instalazioaren zuzendariak edo baimenduriko instalatzaileak sinatua eta, RITE erregelamenduari jarraiki, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzaren dagokion organoan erregistratua.
<ul style="list-style-type: none">• Exekutututako obren argazki-dokumentazioa, kolorez ahal bada.
<ul style="list-style-type: none">• Gauzaturiko jarduketaren gastu- eta ordainketa-frogagiriak.
<ul style="list-style-type: none">• Hala badagokio, erantzukizunpeko adierazpena, diruz lagunduriko jarduera finantzatu duten beste dirusarrerak eta dirulaguntzak zehaztuz. Beren zenbatekoa eta jatorria azaldu beharko ditu.